

zu ni zeranean mintzatuko gara, erantzun bakarra. Baina, usteak uste, bibliografietan ere hain jaramon guti egin zaion Féliz de la Fuente Marquínez de Beltrán-en *Universitas*-i inork uka ezin bere universaltasuna, izenburuak dionez eta eduki-naren poliglotasunagatik.

ETXERAKO DIRUA?—Donostiago Aurrezki Kutxak bi-deetan «Etxerako dirua» eskaintzazko iragarkiak jarri ditu aurten. Izan ere, krisi luze honen ondorean holako laguntza beharrezkoa zen.

Aurrezki Kutxa horren zenbait sukurtsaletan txanda hartzean izan dira istiluak eta atsekabeak. Etxerako dirua jasotzeko asmoan joan eta eman ez. Zelako desiluzio. Etxerako ez, etxearentzat eskaintzen omen da, eta ez errediturik gabe. Hor ba; ustea, erdi ustela.

TRADUCCION SIMULTANEA.—Roiz Olabeguenagakoaren ustez, «traducción simultánea»-ren erabileran, euskaldunok ez omen diogu katalanei zorrik. Haien teknikak hainakoak edo hobeak omen dira hemengoak.

Justo Egiategi, harri eta zuhur: Hala diotenez, egia izanen da. Diferentzia bakarra, hango politikoez itzulpen simultaneo erabiltzen dute katalanetik gaztelerara eta hemengoek aldiz gazteleratik euskarara.

Nork esan du euskarari aukerarik ez zaiola ematen?

ASTERIX KOMIKIAK ETA G. ARESTI.—Aurtengo apirilaren 12an, adiskide Angel M. Ortiz Alfau-k «Miscelanea vasca» zeritzan artikulua bat argitaratu zuen Bilboko *El Correo Español*-en, beste zenbait gauzaren artean Gabriel Arestik

Ediciones Júcar-eko Silverio Cañada-ren bidez Asterix-en obrak euskaratzeko eskabidea hartu zuela eta lanori zertan zen galdetuz.

Hara hemen zenbait ohar gai horretaz dakidana agertuz. Itzulpen enkargua hartzetik laster hil zen G. Aresti. Zenbait zirriborro prestatu omen zituen baina lanik apenaz burutu zuen. Horietarik zerbait pasatu zen Jesus Mari Arrietaren eskuetara, argitaratzaile arduradunagandik. Ezin nezake ziurtatu itzuli zuen guzia ala parte bat. Baina Jesus Mari berak ezan zidanez, guti aurkitu omen zuen aprobetxagarririk eta goitik behera berriz itzuli beharren aurkitu omen zen.

1976-tik 1978-ra Coscinny-ren egiletzan, Uderzo-ren marrazkiz, Dargaud etxearen jabegepean Mas-Ivars Editores, S. L.-ek, argitaratu zituen baina itzultzailearen izenik gabe, euskal itzulpenen jabe eta banatzaile bakartzat Iñaki Beobide. Argitaratutako liburuen izenak: *Asterix. Buruzagien burruka*; *Asterix-en ibilaldiak*; *Asterix eta Kleopatra*; *Asterix Legionarioa*; *Asterix eta normandoak*; *Asterix Helvetian*; *Asterix galesa*; *Asterix eta godoak* eta *Asterix eta urrezko igitaia*. 29,5 x 21,5 zm. neurrizko liburuxkak, 48 orrialdekoak, kartonez enkuadernatuak.

Uste dut argitalpenok ahituak direla. Dena dela, hori da eman genezakean argitasuna.

«BADAKIGU EUSKARAZ».—*Egan*-en zuzendari izanik bulegoko mahaiaren gainean euskaldun askok ohi bezala «Badakigu euskaraz» zergatik ez dugun? Iragarki hori ghetto baten parapettoa iduritzen zaigulako. Guk, jartzekotan ere, «También sabemos castellano» jarriko genuke.

Eta ia euskaldun berriei eta hain berri ez direnei nork irakasten dien, *ghetto baten* parapettoa eta *ghetto batean* parapeto ez dire gauza bera. Hortik ikus *batetan* non koka.